



## LEHEN HEZKUNTZAKO 1. zikloa: IPUIN SARITUA

### SUGAR ETA ANIMALIAK. Amaiur Zoroza Elorza

Bazen behin olagarro bat, basamortuan bizi zena. Ipurdia kopetan zeukan eta marrazo ahoa eta hamasei hanka. Oso koloretsua zen, horia, arrosa, berdea eta urdina. Sugar deitzen zen eta lagunei laguntzea gustukoa zuen.

Egun batean mendira joatea pentsatu zuen Sugarrek. Gaua iritsi zen eta ez zuen ezer ikusten. Gauean elur asko egin zuen eta hotz handia pasatu zuen. Oso kezkatuta zegoen eta negarrez hasi zen.

Halako batean su bat ikusi zuen. Sugar su ondora joan zen. Han etxe handi bat ikusi zuen. Sugar sartu zen. Etxe barruan animalia asko bizi ziren eta han igaro zuen gaua. Gaua bukatu zen eta pena ematen zion agurtzea. Sugarrek pentsatu zuen beraiekin bizitzea. Animalia guztiek ongietorria eman zioten eta festa bat egin zuten.

Hala bazan edo ez bazan sar dadila basamortuko plazan.

